

Ekintzen itzalak hitzen argira

Eneko Bidegain kazetari eta idazleak Iparretarrak erakundearen historia argitaratu du, Gatzuzain argitaletxearen eskutik. Kideen kontakizunetatik abiatuz, 30 urteko ibilbidea aztertu du

AITOR RENTERIA
Baiona

Kazetariz mukurru beteaz zegoen atzo Baionako Elkar megadenda, *Iparretarrak, erakunde politiko armatu baten historia* Eneko Bidegain BERRIAko kazetariak idatzitako liburua aurkezpeneren kariatara. Liburua irakurri aitzin, ase ezinezko jakin-mina eta mila galdera zituzten kazetariak, mugimendu horrek Ipar Euskal Herrian ukan duen garrantziaren isla. 1973an egin zuen IK-k lehen ekintza armatua, eta geroztik ekintzak, errepresioa, isiluneak, negoziazio saioak eta aldarrikapen politikoak ehunduz joan dira egunez egun eta urtez urteko bizipenetan. Burkideen bizipen eta oroitzenetatik abiatuz, Iparretarrak taldearen historia, sorreratik gaur egungo egoerara, sakondu du Bidegainek.

Erakunde politiko armatu baten historia izendatu du liburua, funtsean Iparretarrak erakundearen egitura bera ez delako ohikoa izan. Erakunde politiko-militar gisa aurkeztu zen IK, eta egituraren erislatzen zen gutizia hori. Izenaren arrazoiak ere argitzen du. Ipar Euskal Herria zeukaten eremu politikotzat, azken helburua Euskal Herri batu eta independentea bazen ere. «Garai hartan erresistentzia mugimendu bakarra ETA zen eta

Iparaldeko abertzaleei naturala iruditzen zitzaigun izen hori hartzea, ETA zelako Euskal Herri osorako erakundea», azaldu du kide batek. Eta, Iparaldeko mugimenduari hori askotarikoa zen heinean, izena pluralean ezarri zuten, iritzi eta pentsaera ezberdinen bilgunearen adierazle.

Lehen ekintza 1973an egin zuen IK-k, baina aitzinetik gogoeta sakon bezain luzea egin zen, herrialdeka eta eskualdeka. 68ko maiatza, mundu zabalean izaten ziren nazio eta gizarte askapenerako mugimenduak, Hego Euskal Herriko egoera eta Frantziak Ipar Euskal Herrian egiten zuen deuseztatze eta ukazio politika izan ziren, liburuaren arabera, hainbat militante erakunde politiko-militarra osatzera bultzatu zituzten arrazoiak.

Armak gorderik zeuzkatela egin zuten lehen ekintza, Nafarroa Beherean, Bankan. Lantegi bateko nagusi bati zafaldia eman zioten, langileen kontrako jazarpena salatzeko. Ondoren hartu zuten bideak ere ezkerreko ikuspegia zuen mui-nean. *Lana Herrian, Herria ez da salgai* eta halako leloek argi erakusten zuten hastapeneko gutizia. Laborari, langile eta arrantzailek osaturiko egitura eskualdetan antolatua zegoen, adar militar edo politikorik berezi gabe. Talde politikorik ez zeukaten eremuan, talde militarrik ez zegoen.

Lurraren eta etxebizitzaren kezka, laborariaren zailtasunak, egitura ekonomiko nagusi gisa bultzatu nahi zuten turismoa, Euskal Herriaren ukazioa, euskararen egoera eta bertz hainbat abiapuntu ematen ditu Bidegainek liburuan IKren sorrera eta garapena ulertzeko. Laster agertu ziren ETA eta IKren arteko ezadostasunak, fronte bakarren eta bateratuaren artekoak eta bi aldeetako kideen arteko liskarrak.

HERIOTZEN DOLUA. IK-k bost militanteren heriotzak, Jean Paul Larre Poporen desagertapena, klandestinitatean ibilitako militanteen lekukotasuna eta bertze hainbat une garrantzitsu nondik nora gertatu ziren azaldu du Bidegainek. Baita Garbi Mousesca eta Maddi Hegi Paueko presondegitik atera zituen ihesaldia ere.

«Injustizia sentitzen badu herri batek, herritarren iritzia kontuan hartu gabe hartzen badira erabakiak, beti egonen da bortizkeriara jotzeko grina, Euskal Herrian eta mundu zabalean», azaldu du Bidegainek, IKren historia kontuan hartu eta geroari begira.

>> arenteria@berria.info



Eneko Bidegain kazetaria, atzo, Baionan, IKren historia jasotzen duen liburua eskuan duela. GAZKA ROZ

ENEO BIDEGAIN Idazlea eta kazetaria

«Gazte batzuk arrunt ukatuak zirela ohartu zirelako sortu zen IK»

A. R.
Baiona

Militanteek osatzen dute taldea, eta kide horien bizipenak aztertu ditu Bidegainek (Baiona, 1975) liburuan, IKren historia alde politiko zein humanotik osatzeko.

Garai bat bukatutakoan idazten da historia. Ez ote da sobera goiz IKren historia idazteko?

Historia ez da inoiz bukatzen; herrienak ere egiten dira, biziak segitu arren. ETAz ere idatzi dira eta hor da oraindik. IKren kasuan duda sortzen duena da urte frankotan ez duela ekintzarik hartu bere gain, isilik dagoea. Gaur ez dakigu zertan den, horrek sortzen du duda.

Denbora hurbiltasuna oztupo izan da idazterakoan?

Beti da zailagoa eta delikatuagoa hurbiletik idaztea. Lan hau egitean ohartu naiz. Eragileak bizi dira. Distantziak errazten du lana, eta aiseago litzateke 50 urteko distantzian idaztea. Baina, aldi berean, liburu honen interesa da horien lekukotasuna, oroitzenak fresko egonik bildu direla. Egin beharreko lana zen, IKren historia idaztea IK-k kideek berek kontaturik.

Zerk bultzatu zaitu liburua idaztera?

Gatzuzainek proposatu zidan, 2003an. Aspaldiko asmoa zuten, iduriz. Gaia interesgarria iruditu zitzaidan. Gaztea izan arren, baren gogoia Ipar Euskal Herriaren historiako atal hori hobeki azaldu eta ulertzeko. Egoera politikoarentzat dudak grinak bultzatu nau. Zein da liburuaren bidez egiten duzun ekarpena?

Garai hori ezagutu ez duten jende-ei, gazteei bereziki, ezagutzeko parada eman nahi nien. Lortu dudanez edo ez haiek erranen dute. Baina nire asmoa, hein batez, hori da. Euskaraz egitea hautatu dut, zabalkuntza nazionala bermatzea. Garai hori ezagutu dutenentzat, beharbada, gauzak gogoratzeko balio du, xehetasun batzuk jakiteko.

Bada bereziki inarrosi zaituen une edo pasarterik?

Biziki hunkitu ninduen Mousesca eta Hegiren ihesaldiak. Badu halakoa alde heroikoa, balentria. Xeheki kontatua da. Gero badira gertakari ilunak, Didier Laffitten heriotza, Poliziak tiro egin ziolarik bizkarretik. Gehien sakondu ditudan garaia hastapeneko urteak izan dira. Sortzea bera inoiz ez zen aipatzen. Zergatik sortu zen edo nola hautatu zuten izena. Sekula idatzi ez diren hainbat gai aipatu ditut. Hastapeneko uneak, gutxienez genekizkien gauzak ezagutzera eman nahi izan ditut.

Klandestinitatearen bidea hartu zuten pertsonen bizipenak toki zabala du liburuan. Zergatik?

Engaiamendu politikoaz gain, en-

«Egin beharreko lana zen, IKren historia idatzi behar zen, IK-k kideek berek kontaturik»

«Ezin da pentsatu erro politiko edo sozialak dituen bortizkeria Poliziaren bidez konpon daitekeenik»

gaiamendu humanoa handia da. Haien izaera eta ikuspegia agertzen dira liburuan. Holako hautu bat egiteak zer dakarren agerrarazi nahi nuen.

Oraindik bizi dituzte ondorioak.

Filipe Bidarte ezin da itzuli oraindik Euskal Herrira. Gutxienez karrikan da, duela urtebete kartzelan zen. Liburuan agertzen da haren lekukotasun luzea. Kartzelatik atera denetik eman duen lehen elkarrizketa luzea da. Sakon mintzatzeko da IKz. Kartzelatik ateratzeko biziki erraztu du. Han ez ziren bermatzen elkarrizketa egiteko baldintzak. Preso ohi anitz oraindik isunak ordaintzen ari dira.

IKren historiak geroari buruzko oharrik uzten du?

Iparaldeko gazte batzuk oldartu zirelako sortu zen IK. Euskaldun gisa, bai kulturalki, bai politikoki, bai sozialki, arrunt ukatuak eta zapalduak zirelako. Momentu batez ukapen hori jendearentzat mingarria denean, defenditzeko aukerarik ikusten ez dutenean, oldartzeak gertatzen dira. Garai jakina zen. Borroka armatua franko datua zegoen bertze hainbat tokitan. Azken hilabeteetan ekintza armatuak izan dira Iparaldean. Populuak sentitzen badu ukapen eta injustiziaren biktima dela, beti ager daiteke bortizkeriarako joera. Ezin da pentsatu erro politiko edo sozialak dituen bortizkeria arrazoi polizialen bidez edo ideologiaren lokarraraztearen bidez konpon daitekeenik. Bortizkeriaren agerraldiaren apaltzea unean unekoa izan daiteke bakarrik.

LIBURUA



- **Liburuaren izena:** *Iparretarrak, erakunde politiko armatu baten historia*.
- **Idazlea:** Eneko Bidegain.
- **Argitaletxea:** Gatzuzain.
- **Salneurria:** 17 euro.
- **Orrialde kopurua:** 317 orrialde.